



Busturiko  
Udala



# Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea

DATA / FECHA: 2019/03/20

HASIERA / INICIO: 20:40

AMAIERA / FINAL: 20:45

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA / ALCALDE

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa lehen deialdian egiteko. Ekitaldiaren fede eman zuen Udaltzatzen idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion, aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatutako gai-zerrendaren arabera, eta akordio-proposamen hauek egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

### 1.- Aurreko saioko akta.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez adostu zuen 2019ko martxoaren 6ko saioko akta onartzea.

### 1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 6 de marzo de 2019.

### 2.- 2019ko Enplegu Planeko langileen hautaketa.-

Tokiko Gobernu Batzordeari 2019ko Tokiko Enplegu Planaren barruan aurkezturiko eskaerak baloratzeko egindako proben emaitzen berri eman zitzaion; emaitza horiek puntuazio-ordena hau ezarri dute:

### 2.º.- Selección Plan de Empleo 2019.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de los resultados de las pruebas realizadas para la valoración de las solicitudes presentadas dentro del Plan de Empleo Local de 2019 y que han dado el siguiente orden de puntuación:

Izena eta abizenak/Nombre y apellidos	Puntuak/Puntos	Ordena/Orden
R. I., I.	50	1
O.-A. Z., E.	47	2
N. R., R.	34	3
A. M., J.	30	4
I. I., M.	30	4
G. L., D.	23	6

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen, sei hilerako, I. R. I., E. O.-A. Z., R. N. R. eta J. A. M. langile aritzeko kontratatzea.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó contratar como peones para un periodo de seis meses a I. R. I., E. O.-A. Z., R. N. R. y J. A. M.

### 3.- Atxondoko hariztiaren egoera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak jakin zuen Atxondoko hariztiko hainbat arbola (hala eliza ondoan nola Axpe auzoko 4. zenbakiko etxe ondoan daudenetakoak) egoera oso kaskarrean daudela, lehor eta xilofagoek jota, eta berehalako arriskua dagoela adarrak erortzeko edo arbolak eurak kolapsatzeko, gune berdeetako mantentze-lanez arduratzen den enpresaren, Lantegi Batuak, arabera.

Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, txosten tekniko bat eskatzea, urgentziaz, zuhaitziaren egoera eta hartu beharreko neurriak aztertzeko.

### 3.º.- Situación del robledal de Atxondo.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que, según información suministrada por la empresa encargada del mantenimiento de las zonas verdes, Lantegi Batuak, varios árboles del robledal de Atxondo (tanto de los situados junto a la Iglesia como los que están junto a las casas del barrio de Axpe n.º 4), se encuentran en una situación muy precaria, secos y afectados por xilófagos, planteando un riesgo inminente de caída de ramas o incluso de colapso del propio árbol.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó encargar de manera urgente, un informe técnico que analice el estado del arbolado y las medidas a adoptar.

#### 4.- Irrintzi Alai Dantza Taldearen eskaera.-

Kontuan hartuta Irrintzi Alai Dantza Taldearen eskaera, bere 50. urteurreneko ospakizunak eragin dizkion gastuei aurre egiteko laguntza ekonomiko bat eman dakion (eskaeraz batera gastu horien frogagiriak aurkeztu ditu), Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen 2.000 €-ko laguntza ematea.

#### 4.º.- Solicitud de Irrintzi Alai Dantza Taldea.-

Vista la solicitud presentada por Irrintzi Alai Dantza Taldea para que se les conceda una ayuda económica con motivo de los gastos que les ha generado la celebración de su 50 aniversario (al que se acompaña justificación documental de los pagos efectuados), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó concederles una ayuda de 2.000 €.

#### 5.- Lursail-itxiera San Antonio inguruan.-

Kontuan hartuta URA-Uraren Euskal Agentziaren eskaera, I. G. G.k San Antonioko hondartzatik gertuko lursail bat (3. poligonoa/5- lursaila) ixteko aurkezturiko eskaerarekin lotua, eta Udal Arkitekto Aholkulariaren txostena aztertuta, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, aipatu eskaeraren alde agertzea.

#### 5.º.- Cierre de parcela en la zona de San Antonio.-

Vista la petición de informe emitida por la Agencia Vasca del Agua, URA, sobre la solicitud formulada por I. G. G., para el cierre de un terreno sito en las cercanías de la playa de San Antonio (polígono 3/parcela 5), y examinado el informe emitido por el Arquitecto Asesor Municipal, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó informar favorablemente dicha solicitud.

#### 6.- R. E. H. K.en eskaera.-

Kontuan hartuta R. E. H. K.ek aurkeztutako eskaera, San Antonioko hondartzan ehungintzako produktuak saltzeko kalez kaleko postu bat ezarri ahal izateko, 2019ko ekainaren 1etik irailaren 1era, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen dagokion baimena ematea.

#### 6.º.- Solicitud de R. E. H. K.-

Visto el escrito presentado por R. E. H. K. solicitando la instalación de un puesto ambulante para la venta de productos textiles en la playa de San Antonio, desde el 1 de junio hasta el 1 de septiembre de 2019, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder la citada autorización.

#### 7.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, bidalitako txostena ikusita, hirigintza-baimen hauek ematea erabaki zuen aho batez, bertan jasotako baldintzak bete behar izanda eta edukia eskatzaileari helarazita:

- BBK Banku Fundazioaren izenean (8/19 Txost.), parke irekiaren urbanizaziorako (1. Fasea), BBK Urdaibai Udalekuan, Abiña Andoni Deuna, 1ean, 346.805,25 €ko aurrekontuarekin.

Alkate jaunak jakinarazi zuen Zain dezagun Urdaibai elkarte gaia eztabaidatzera gonbidatu zela, posta elektronikoz, baina ez zela agertu.

#### 7.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes emitidos, acordó, por unanimidad, conceder la siguiente licencia urbanística, que queda sometida al cumplimiento de las condiciones establecidas en los mismos, de cuyo contenido se deberá dar traslado a la solicitante:

- BBK Fundación Bancaria (Expte. 8/19), para la urbanización de parque abierto (Fase 1), en la Colonia BBK Urdaibai, en el barrio Abiña Andoni Deuna, 1, con un presupuesto de 346.805,25 €.

El Sr. Alcalde informó de que al debate de este asunto había sido invitada por correo electrónico la asociación Zain dezagun Urdaibai que, sin embargo, no se había presentado.

#### 8.- Aparkaleku irregularrak Atxondon.-

Tokiko Gobernu Batzordeak jakin zuen Atxondo inguruan aparkatuta dauden hainbat ibilgailu bai galtzada bai espaloia inbaditzen ari direla, handiak direlako (autokarabanak, karabanak, etab.).

Ertzaintzari aparkaleku horiek egokiak ote diren galdetuta,

#### 8.º.- Aparcamientos irregulares en Atxondo.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de la existencia de varios vehículos aparcados en la zona de Atxondo, que, por sus dimensiones (auto caravanas, caravanas, etc.), invaden tanto la calzada como la acera.



Udalak jakin du ezetz; arrazoa ez da aparkatuta egoteko denbora-tartea, baizik eta galtzada eta espaloiak inbaditzen ari direla.

Hala, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen, aho batez, aipatu ibilgailuen jabeek eskatzea zirkulazio-araudia urratuko ez duten beste leku batzuetara eramateko.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta, adostutakoa oinarri, akta hau idatzi da, Alkate jaunak eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dudanak, sinatu duguna.

Alkatea / El Alcalde,

Izp. / Fdo.: Aitor Aretxaga Telletxea

Consultada a la Ertzaintza sobre la legalidad de tales estacionamientos, se ha informado al Ayuntamiento de que no son correctos, no por un tema de periodo de estacionamiento, sino por invadir la calzada y las aceras.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dirigirse a los propietarios de los citados vehículos, a fin de que los trasladen a otros puntos en los que no infrinjan el reglamento de circulación.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria / El Secretario,

Izp. / Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez